

KRITIKA

Isiltasunak dioena

Irati Majuelo

Adania Shibli azaldu du bi beldur handi dituela; bate-tik, munduari dio beldur, noizbait «gaur atzo baino hobe gaude» ezin esateari; bigarrenik, hizkuntza galtzeari, egoerak gain hartu eta hura adierazteko hitzik ez izateari, errealitatearen zein hizkuntzaren mugetara iristeari. Kezka horiek zeharkatzen dute *Detaille xume bat* liburua, eta kezkek arrangura bilakatu dira berriki, udazkenean liburua zein egilea Frankfurtoko Azokan gaitzetsiak izan ostean. Hertsuraz harago, mintza gaitezen Palestinaz, bada.

Detaille xumeetan, xehetasun ezdeus eta txikiengintan arreta jarrita, 1948ko Nakbaren osteko Palestina eta egungoa lotzen ditu Shibliaren eleberriak, bi garai eta min bera. Halabeharrik



'Detaille xume bat'
Idazlea: Adania Shibli.
Itzultzailea: Aitor Blanco Leoz.
Argitaletxea: Igela.

elkartzen ditu gertakariak eta pertsonaiak, gatazkak, azken finean, eta haien bidez ekartzen du argitara nola egin duen aurrera kolonizazioak, nola itxuraldatu diren mapak, nola ordezkatu hizkuntzak eta galdu paisaiak. Hots, ikusarazten du herri baten desagerpena nola identifika daitekeen dokumentu eta museoetatik at.

Bi ataletan banatzen da kontakizuna. Lehenengoan,

1949an Negev basamortura Egiptoko muga zaintzera bidalitako destakamentu militar baten egunerokoa azaltzen da. Ezerezaren erdian, ofizial israeldar baten errutina errepikakorra kontatzen du: bero itogarria, dunen arteko esplorazioak, soldaduek bete beharreko aginduak, urruneko txakur-zen zaunkak. Monotonia horretan, detaile txiki batek eusten dio tentsioari: zomorro batek eragindako zauria eta ofizialari areagotzen ari zaion zornea. Estilo lehor eta geldoaren bidez, normaltasunaren baitan txertatzen du jazarpen militarren bortizkeria: beduinoen aurkako segadak zein neska gazte baten bortxaketa eta erailketa.

Isildutako gertakari horrek, kasualitatez, jakin-min handiko emakume baten arreta pizten du. Liburuaren bigarren zatia, beraz, jazotakoa ikertzeko bidaia

du ardatz. Kontakizunak erritmoa hartzen du orduan, egunerokotasuna jada ez da errepikakorra, baizik eta ezusteko kontrol, mehatxu eta erasoz betetako bizirau-pen hutsa. Ahots arin eta zalantziaren bidez, okupaziopean bizitzeak sortzen duen antsietatea salatzen du Shibli atal honetan. Izan ere, arauen arbitrariotasuna, inposatutako mugak errespetatu beharra zein militarizazioaren tentsioa agerian jartzen ditu protagonistak, salbuespeneko egoera bakoitzera egokitze ezintasuna erakustean.

Liburuak eite zirkularra hartzen du apurka-apurka, irakurlea bi kontakizunak konektatzen dituzten detaile xumez ohartu ahala. Ahanzturan geraturiko istorioaren bila, protagonista bera isilpean geratuko ote den ezin jakin, azkenerako, keinurik inuzente eta ezdeusenak ere dena alda baitezake. ●

KRITIKA

Antiheroia

Imanol Mercero

Hona antiheroia baten istorioa, enpatia eragiteko ikaragarrizko abilitadearekin, umorez betetako kontakizunean dabilelarik, 50 orrialderi aurre egin ez dion irakurle bati ongi pasaraziko dion pertsonaia jatorra.

Kontaktaren haria ibilbide baten itxurakoa da, narratzaileak deskribapen irrigarriz betetzen duena. Esaterako, Zakur Ustel deskribatzeko «ilajea arkakusoz beteta eta burmuina zerrautsez blai» dio (14 orr.), eta aurrerago hau dio Ustelek bere buruaz: «Beti izango naiz koilararik gabeko jogurta, bururik gabeko sonbreirua, hezurrik gabeko arraina...».

Ekintza labur kateatuak baino gehiago da, zorionez, kontakizuna. Irakurlea eskutik eramanda bezala, protagonista aurkezten zaigu eta Katu



'Zakur ustel'
Idazlea: Colas Gutman.
Ilustratzailea: Marc Boutavant.
Itzultzailea: Yolanda Arrieta Malaxetxebarria.
Argitaletxea: Denonartean.

Zapalekin daukan harremana erakusten; jarraian abentura abiatzen da, zoriz topatzen dituen objektu eta pertsonaiak deskribatzen, eta haiek zakur inozoarekiko daukaten jarrera lerro artean erakutsiz. Konturatzerako animalia akastun mordoa ezagutu dugu (oskolik gabeko dortoka, marrarik gabeko zebra, uso herrena, perikito mutua...).

Ez da Timo Parvelaren *Elia*, baina ongi dago. ●

KRITIKA


Bihotzarekin

Imanol Mercero

Haur literaturako ezinbesteko sortzailea da Anthony Browne. Dauden saririk garrantzitsuenak eman dizkiote egindako ekarpen hunkibera, original eta sakonengatik. Halakoxeak direlako haren lanak, eta halakoxea delako *Eder txikia* album ilustratu hau ere.

Benetako anekdota batetik abiatuta, zoo batean bizi den gorila bat aurkezten zaigu, zeinu hizkuntza ikasi duena eta zaintzaileekin komunikazio aberatsa eduki dezakeena.

Egun batez, bakardadearen tristorak jo duela oharturik, lagun bat eskatzen du. Zaintzaileek katakume bat eskaintzen diote, eta adiskidetasun harreman asimetriko hori abiatzen da. Eta inor gutxik espero bazuen ere, erabateko uztarketa gertatzen da. Segidakoa ez dut hemen jarriko.



'Eder txikia'
Idazlea: Anthony Browne.
Ilustratzailea: Anthony Browne.
Itzultzailea: Manu Lopez Gaseni.
Argitaletxea: Pamiela-Kalandraka.

Zer dioen eta zein hausnarketa bilatzen duen adierazteko lekurik ez dagoenez, *Ederra eta piztia* ipuinarekin gogortzea gomendatzen dizuet.

Bestela ere *ilustraziogintza* teknikak arakatzeko aukera ez galdu; esaterako, nola aurkezten dituen zehaztasun desberdineko marrazkian, ilustrazio bakarrean, itzalen erabilera narratiboa, edota kolorearen bidezko emozio adierazpenak. ●

Pandemia garaian aldarrikatzen bazen ere sistema goitik behera aldatu behar zela, pandemia ostean erabat azkartu da sistema kapitalista. Amnesia kolektiboa ote da? Cañequek dio apokalipsiaren desira bizi duen gizartea dela egungoa, eta haren aburuz, horretan datza bukaeraren beharra gure mundua badela baieztatzeko. Cañequek azken esaldia munduaren bukaerarekin lotzen duen guztietan burura etortzen den irudia zera da, Lars von Trier zinemagilearen *Melancholia* filmaren amaiera da.

Cañequek liburua bukatzeko zailtasun latzak izan zituen, amaiera etengabe atzeratzen zuelako. Idazle askok pairatzen duten prokrastinazioaren biktima zen. Irtenbide bat aurkitu nahian, Erresuma Batuko Land's End-era joan zen. Bertan amaitu zuen testua, amildegia hurbil zuela. Esan daiteke azken esaldiari buruzko saiakera bat amildegia ondoan amaitzea performance bat izan zela ia.

Eta nola buka daiteke erreportaje hau? «—Nik zigarroa bukatu arte itxaron». (387. aipua, Julio Cortazarren *Rayuela* nobelatik askatutako azken esaldia). ●